

Bost gau pizzerian

Bazen behin Mikel izeneko gizon bat hogeit hamar urte zituen, ile beltza, azal kolore morea eta 1,70 m neurtzen zuena.

Berak dirua nahi zuen bere etxea ordaintzeko, orduan lana bilatzen ibili zen eta pizzeria batean lortu zuen lana, bere etxetik hara heltzeko bidea zaila zen baina joan egin behar zen.

Mikel pizzeriara heltzean, robot batzuk ikusi zituen eta beraien ondoan botoi bat. Botoia jo baino lehenago lanera sartzeko elkarrizketa bat eduki zuela gogoratu zuen. Willian izeneko gizon batek egin zion entrebista eta esan zion robot horiek Azeria, Oila, Hartza eta Untxia deitzen zirela. Baina pizzeriara bueltatuta, botoia jo zuen eta robotak dantzan eta kantatzen hasi ziren. Mikel harrituta geratu zen inoiz ez zituelako ikusi robot batzuk dantzan, orduan, musika entzuten zegoela pizza bat hartu zuen lasai egoteko. Oso urduri zegoen, izan ere, bere lehenengo lan eguna zen. Pizza jan eta gero bere lanpostura joan zen. Bertan kamarak zituela konturatu zen, ateak zabaltzeko, blokeatzeko eta argia, ate atzean zegoena ikusteko. Mikeli hau dena arraroa iruditu zitzaion, baina ez zion kaso handirik egin, denbora bat pasatu eta gero bere lehenengo eguna bukatu zuen.

Mikel beraren bigarren gauera oso pozik joan zen asko gustatzen zitzaiolako bere lana, orduan bere lehenengo gauetan bezala botoia jo zuen eta robotak dantzan hasi ziren. Orduan pizza bat hartu zuen eta bere lan postura joan zen, baina gauza berri bat deskubritu zuen. Bateria zuela, horrek esan nahi zuen ez zuela asko erabili behar ez argirik, ez aterik, ezta kamararik ere. Bestela bateria gastatuko zen orretaz aparte, gaua lasaia izan zen eta bukatu zuenean bere etxera joan zen.

Hirugarren gaua helduta dena oso arraroa zen, botoia ez zebilen, ez zioten pizzarik laga eta robotak zeharka begiratzen zioten, orduan korrika joan zen bere lan postura eta kamarak begiratzen hasi zen.

Lehenengo bi orduetan ez zen ezer gertatu baina hirugarren orduan Hartza mugitu zen, barre bat eginez, horregatik, Mikelek bi ateak itxi zituen. Baina bateriatik gogoratu zen, orduan kamarak begiratu zituen eta Hartza ezkerreko atetik zegoen etortzen, orduan Mikelek ezkerreko atea itxi zuen eta Hartza joan egin zen. Baina Azeria korrika etorri zen. Azeria oso azkarra zen eta korrika etortzen zen baina Mikel momentu hartan kamarak begiratzen eta orduan denboraz itxi zuen atea baino gero Azeriak kolpe batzuk eman zion ateari eta horrek bateria kendu zuen. Gehitzen badiogu kamarak eta ateak steak ehuneko hogeit geratzen zitzaion bateria, baina momentu horretan gaua bukatu zen eta etxera joan zen.

Laugarren gaua heldu zuenean Mikel ur boteila batekin joan zen. Ez zuen sakatu botoia eta korrika joan zen bere lanpostura. Bertan zegoela, pauso batzuk entzun zituen orduan, azkar batean ateko argia piztu zuen eta han zegoen Untxia, baina sartzeko segundu bat falta zuenean Mikelek atea itxi zuen. Mikelek pentsatu zuen. -hau dena lehenengo orduan bakarrik gertatu da? Harrigarria zen baina bazekien bertan gelditzen bazen hil egingo zutela, orduan, azkar batean komunera joan zen eta seguru zegoela pentsatu zuen.

Ez zen horrela. Goizeko laurak jo zituzten, eta robotak Mikel ez zegoela bere lan postuan konturatu zen baina Mikel ere konturatu zen robotak hori bazekitela horregatik bere lanpostura nahi zuen bueltatu. Horrela ez zuten topatuko gau osoan, hori ideia ona zen baina robotak pizzeria gustitik zeuden bera topatzen. Orduan bide luzea izango zen, momentu horretan ideia oso ona bururatu zitzaion, ur botailako ura botatzea beste toki batera eta horrela zaratarekin hara joango zirela. Hori egin zuen eta hara joan ziren, baina lanpostura joan zenean bateriarik gabe geratu zen, baina suertez gaua orduan bukatu zen.

Bostgarren gaua heldu zenean, pizzeriara sartu zen. Mikelek bazekien bere azkenengo gaua izango zela, orduan konfiatuta joan zen baina konfiatuta joatea ez zen ideia ona izan.

Mikel beti bezala bere lan postura joan zen joan zen. Gau hura ez zen izango betiko berdina. Robotak askoz ere gehiago mugitzen eta Mikelek denbora gutxin bateria asko galdu zuen.

Bakarrik %30 bateria geratzen zitzaion eta gaueko hirurak ziren. Kotxe bat etorri zen, kotxe hori morea zen eta pizzeriako giltzak zituen. Sartu zenean, Mikel, Willian zela konturatu zen, baina konturatu orduko robotak desaktibatu zituen.

Mikelek pentsatzen zuen bera laguntzera etorri zela baina ez, laban bat hartu eta berarengana joan zen. Mikelek ezin zuen sinetsi, orduan ezkutatu egin zen. Willian bera topatzen zebilen eta bat-batean Willian, Mikelen lanpostura joan zen. Mikel komunean zegoela ezkutatuta, korrika joan zen pizza bat hartzera. Pizza hartu eta gero atetik joan zen. Mikelek ez du ahaztuko inoiz baino seguru ez zuena ahaztuko bakarrik 120€ eman ziotela eta ia, ia hil egiten zutela.

Ebay Ilanos